

OPARI TXARTELA - BALDINTZA OROKORRAK

1. Opari txartela (Txartela) Espainiako Inditex Taldearen dendetan eta webguneetan salgai dauden produktuak erosteko balio du: Zara, Pull&Bear, Massimo Dutti, Bershka, Stradivarius, Oysho, Zara Home eta Lefties (aurrerantzean, Saltoki banan-banan haietako bakoitza, eta Saltokiak, berriz, denak batera).
2. Txartela bere jaulkitzailearen jabetza: INDUSTRIA DE DISEÑO TEXTIL, S.A. (INDITEX, S.A.) IFZ A15075062, helbidea: Avda. de la Diputación s/n, Arteixo, A Coruña, txartelaren eramailea gordailuzain hutsa da.
3. Erosi zen Establezimenduan eta epe hauetan bakarrik itzuli ahal izango da erabili gabeko txartela:
 - euskarri fisikoan, 30 egun naturaleko epean erosketa-datatik zenbatzen hasita denda fisikoan eskuratutako Txartelerako, eta bidalketa berresteko mezu elektronikoen datatik zenbatzen hasita webguneetan eskuratutako Txarteletarako.
 - euskarri birtualean, 30 egun naturaleko epean Txartela hartzaileari bidali zitzaion datatik zenbatzen hasita.

Ondoen, erabileratzat hartzen da bai txartelaren erabilera produktuak erosteko, bai birkargatzea ere.

Zenbatekoa, ordaintzeko erabili den metodo berean itzuliko da. Horretarako, ezinbestekoa da erosketako tiketa edo e-tiketa aurkeztea eta, hala badagokio, baita ordainketa-txartela eta eragiketaren frogagiria ere. Beste herrialde batean erositako Txartelen itzultzerik ez dira onartuko.

4. Txartela birkargatu daiteke, baina Txartelaren saldoa ezin da itzuli edo diruaren truke trukatu.
5. Hala balegokio, Txartelarekin erositako produktuen zenbatekoa itzultzeko Txartelaren saldoa areagotuko da. Dena dela, itzultzeko unean Txartela aurkezten ez bada, zenbatekoa Abonu-txartel batean itzuliko da, honako erabilera-baldintza hauetan:
Abonu-txartela bakarrik Saltokietan erosteko balio du. Zenbatekoa ezin izango da itzuli, ezta diruarekin trukatu. Ez da beste txartelik emango lapurtu edo galtzen bada.

Txartela erosi nahiz erabiltzean berariaz onartutzat ematen den zerizanezko baldintza da dirua itzultzeko modua.

6. Txartela eramaile-dokumentua da. Edukitzaileari bakarrik dagokio hura erabili eta zaintzeko ardura. Ez da ordezkatzeko lapurtu, galdu edo narriatu izanez gero. Nolanahi ere, Jaulkitzaileak beretzat gordetzen du ordezkatzeko eskubidea, txartelaren formatua aldatzen bada.
7. Legez kontra lortutako Txartela baliogabea izango da, ezingo da erabili produktuak erosteko, eta haren zenbatekoa ere ez da itzuliko.

8. Txartel birtuala eskuratuz gero, jasotzaileak txartela jasotzen ez badu edo berandu jasotzen badu, ez gara erantzule izango jasotzaileak gure nahietatik kanpo sortutako arrazoirik baldin bada; besteak beste, (i) linea edo telekomunikazio-sistemen gabeziarik edo kolapsorik izan bada, (ii) informazioa edo datuak igortzeko atzerapenik gertatzen bada, edo (i) atalean aipatutako edozein egoeragatik informazioa edo datuak galtzen badira, (iii) txartel birtualaren jasotzailearen txartelaren erosleak emandako datuak zehatzak ez badira, (iv) ezin bada emandako posta elektronikoaren kontuan txartelik eman, edo (v) igorritako posta elektronikoa spam edo zabor-postatzat hartzen bada.
9. Txartela ezingo da erabili publizitate edo sustapen helburuetarako, Jaulkitzaileak aurrez idatzizko baimena eman badu salbu.
10. Txartela eskuratzea edo erabiltzea baldintza hauek osorik onartzen direla esan nahi du, Baldintzak Txartela eskuratu aurretik eman dira eta Establezimenduetan daude eskuragarri.